HABE

HITZARMENPEKO IKASLEEN EUSKALDUNTZEA

AUTOIKASKUNTZA
2022/2023 IKASTURTEA

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- KONTRATATUTAKO PRESTAZIOEN XEDEA

Kontratatutako prestazioen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Administrazio Publikoetako eta beren sektore publikoa osatzen duten erakundeetako enplegatu publikoei Pertsona Helduen Euskara Irakaskuntzarako Oinarrizko Curriculumaren (HEOC - 2015) araberako euskara-ikastaroak irakastea autoikaskuntza sistemaren bidez, dagokien ebaluazioa barne, honako jarduera-esparru hauetan:

1.a.1 Araban irakatsiko diren ikastaroak

1.a.2 Bizkaian irakatsiko diren ikastaroak

1.a.3 Gipuzkoan irakatsiko diren ikastaroak

1.a.4. Aldi berean lurralde-eremu desberdinetako pertsonalari irakatsi beharreko ikastaroak.

2.- IKASLEAK: ENPLEGATU PUBLIKOAK

Esparru Akordioaren babesean sinatutako kontratuen bitartez bideratzen diren ikastaroetako ikasleak enplegatu publikoak izango dira, hain zuzen ere, IVAPekin, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin, Eusko Jaurlaritzaren Barne sailarekin, Hezkunta sailarekin eta Berdintasuna, Justizia Gizarte Politiketako sailarekin eta Lanbiderekin sinatutako akordioen bitartez bideratutako enplegatuak.

Esparru-akordio honetatik kanpo geratuko da enplegatu publikoek euskara autoikasteko ikastaroak kontratatzea, baldin eta, zerbitzua ematen duen administrazio edo erakundearen jarraibideen arabera, zuzenean eta banaka aukeratu ahal badu ikasleak zer ikastetxetan matrikulatu, lan-ordutegitik kanpo egindako ikastaroa delako.

3.- IKASTAROEN EZAUGARRIAK

IKASTURTEA, IKASTEREDUA ETA IKASTARO-MODULUAK

Kontratatutako ikastaroei dagokienez, ondoren zehaztutako irizpideak aplikatuko zaizkie, betiere plegu honen 5. atalean jasotako lan-markoaren arabera:

3.1.- Ikasturtea:

Euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentroen ikasturtea, 2022ko urriaren 1ean hasi eta 2023ko irailaren 30ean amaituko da. Betiere, helduen euskalduntzearen antolaketaren baitan.

Esparru-akordio honen iraupena bat etorriko da sinatzen den egunetik haren babesean esleitutako azken kontratua amaitu arteko aldiarekin, zeina, gehienez ere, 2023ko abenduaren 23an amaituko baita.

Ikastaroen hasiera- eta amaiera-datei dagokienez, plegu honen 3.3 atalean ezarritakoari jarraituko zaio.

3.2.- Tutorizatutako autoikaskuntza eredua

Tutorizatutako autoikaskuntza ikastereduan oinarria ikaslea da.

Autoikaskuntza burutzeko euskaltegiek edo autoikaskuntzarako zentroek IKTen bidezko plataformak erabili ditzakete eta ikaskuntza hiru ataletan banatuko da:

- Ikasleak bakarkako lana egiteko saioak. Atal honetan ikasleak bakarka egindako jarduerara bilduko da. Halaber, euskaltegien edo autoikaskuntzarako zentroen erabakiz, ikasleen arteko interakzioa bultzatuz trebetasun zehatzak lantzeko helburuarekin multzoan burutu daitezkeen jarduerak ere bilduko dira. Honelakoetan, ekintza horien burutzapenean multzoan emandako orduak parte hartu duen ikasle bakoitzari zenbatuko zaizkio.
- Mintzamena edo ikasleen arteko interakzioa lantzeko saioak. Atal honetako saioetan euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak ikasleak multzoetan elkartuta burutzen saiatuko dira. Saio hauetan ikasleak hartu dituen orduak zenbatuko zaizkio ikasle bakoitzari.
- Tutoretza-saioak. Ikasle bakoitzarekin burutuko dira. Saio hauetan ikasleak hartu dituen orduak zenbatuko zaizkio ikasle bakoitzari.

3.3.- Ikastaro moduluak

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean maila bakoitzerako ezarritako erreferentziazko irakastorduen kopuruak kontuan hartuta, euskaltegiek antolatuko dituzten ikastaroek ondoren zehazten diren gutxienekoak bete beharko dituzte:

a) 190 eskola-ordu matrikula bakoitzeko, 9 hilabetez bakarlanean, mintza- eta tutoretza-saioetan banatuta eta hasiera hilabetea urria, azaroa, abendua edo urtarrila delarik.

b) 75 eskola-ordu matrikula bakoitzeko, 3 hilabetez bakarlanean, mintza- eta tutoretza-saioetan banatuta eta hasiera hilabetea urria, urtarrila, apirila edo uztaila delarik.

Ikastarook 2022ko urriaren 1a eta 2023ko irailaren 30aren artean hasiko dira, eta, edozein kasutan, 2023ko abenduaren 23a baino lehen amaituko dira, dagokien ebaluazioarekin, eta 2022ko irailaren 1etik 30era bitartean hasiko balira urte bereko abenduaren 31 baino beranduago amaituko dira.

3.4.- Malgutasuna:

Aurreko artikuluetan aurreikusitako ikastaroez gain, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak jarritako irizpideen arabera helduen euskalduntzearen esparruan beste ikastarorik ere antolatu ahal izango da, Administrazioan sortutako beharraren arabera, beti ere, jarritako 190 eskola-orduko modulu estandarraren prezioarekiko proportzioa errespetatuz.

3.5.- Osasun aldeko prebentzio neurriak

Kontratatutako ikastaroetako mintza-saioak Covid-19ak sortutako egoerari aurre egiteko une bakoitzean onartzen diren prebentzio-neurriak betez gauzatuko dira.

4.- EBALUAZIOA

Ikasleen ebaluazioa gauzatuko da ondoren zehazten diren xedapen eta ebazpenek ezarritakoaren arabera:

- 2020ko irailaren 9ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituena, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituena.
- Ikastaro bakoitzari dagokion ikasturterako HABEren zuzendari nagusiak emandako jarraibideak eta ezarritako betekizunak, ikastaroaren hasiera- eta amaiera-daten eta iraupenaren arabera.
- HABEren zuzendariak ebaluazioaren aldetik urte bakoitzeko egiaztatze-deialdian zehaztutako betekizunak.

5.- LAN MARKOA

Arauemailea

- DEKRETUA 179/2003, uztailaren 22koa, helduen euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jarduera eta horien finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duena. (EHAA 149. zk., 2003-07-31)
- AGINDUA, 2015eko uztailaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma (HEOC) ezartzen duena. (EHAA, 2015-07-31)
- Ebazpena, 2015eko abuztuaren 3koa, HABEren zuzendariarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren mailen azpimailak zedarritu eta ikas-irakas prozesuen eraketa, jarraipena eta kudeaketa didaktikoaren jarraibideak ezartzen dituena.
- AGINDUA, 2020ko irailaren 9koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituena, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituena.

Curriculum-erreferentziak

- HABE (2015): Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma. Donostia.
- Europako Kontseilua (2005): *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa*. Donostia: HABE. (Jatorrizkoa: Europako Kontseilua (2001) *Common European Framework for Languages; Learning, Teaching, Assessment*. Education Committee. Language Policy Division, Strasbourg.